



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

## **MANKOMUNITATETIK EGITEN DIREN IRTEEREN ARAUDIA**

### **ZER EGIN HONAKO KASUETAN:**

- 1.- Izena emanda daukan pertsona bat ez da irteera-orduan ageri.
  - a.- Kortesia, 5 minutuz itxarongo dugu. Denbora hori igarota, irten egingo gara.
- 2.- Izena eman gabe daukan pertsona bat irteeran ageri da.
  - a.- Izena eman ez dutenek ezin izango dute ekintzan parte hartu (seguruen estaldurak).
- 3.- Ekintzan portaera txarra, baina arina izatea.
  - a.- Pertsona horri edo horiei momentuan egingo diegu errieta.
- 4.- Ibilgailuaren segurtasunean eragin dezakeen portaera txar larria izatea, bidean goazela.
  - a.- Pertsona horri edo horiei momentuan egingo diegu errieta.
  - b.- Adingabekoa bada, senideei deituko diegu, itzuleran bere bila joan daitezen, eta gertatutakoaren berri emango diegu orduan.
  - c.- Adinez nagusia bada, ibilgailua gelditu eta dagokion autoritateari deituko diogu (Ertzaintza, Guardia Zibila).
- 5.- Parte-hartzaileetako bat galdu egin da, istripu arina eduki du, edo antzeko zerbait gertatu da.
  - a.- Begirale bat arduratuko da pertsona hori zaindu eta laguntzeaz.
  - b.- Adingabekoa bada, senideekin harremanetan jarriko gara, larriarazi gabe, itzuleran bere bila joan daitezen, eta gertatutakoaren berri emango diegu orduan.
- 6.- Parte-hartzaileetako bat ez da ageri itzulerarako adostutako topalekuan:
  - a.- Adingabekoa bada, 15 minutuz itxarongo dugu; ageri ez bada, begiraleetako bat bertan geratuko da aurkitu arte. Egokitze jotako garraio bidean itzuliko dira.
  - b.- Senideekin harremanetan jarriko gara, larriarazi gabe, itzuleran bere bila joan daitezen, eta gertatutakoaren berri emango diegu orduan.
  - c.- Adinez nagusia bada, 15 minutu igaro ondoren abialekura itzuliko gara. Topatzen saiatuko gara, egoeraren berri emateko; lortzen ez badugu, gerora jarriko gara berarekin harremanetan.
- 7.- Parte-hartzaileetako batek istripua izan du:
  - a.- Begiraleetako batek bere gain hartuko du egoera. Beharrezko neurriak hartzeaz gain, beharrezkoa bada, ospitalera lagunduko dio.
  - b.- Senideekin harremanetan jarriko gara, larriarazi gabe, eta gertatutakoaren berri emango zaie, beharrezko neurriak har ditzaten.
- 8.- Senide edo ezagun batzuek jaso egiten dute adingabekoa, ekintza amaitu aurretik:
  - a.- Familiako batek baino ezin izango du adingabekoa eraman, baldin eta irteera-orduan adingabearen legezko tutoreek egoera jakinarazi badiote begirale-taldeari. Adingabea ezusteko bat dela-eta eraman behar badute, begirale arduradunei jakinarazi beharko diete.

### **ZIGORRAK**



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

- a.- Huts arina eginez gero(ingurukoak molestatzea irainka...): adieraziko zaio portaera horrekin jarraitzen badu, ekintza horretatik nahiz hurrengoetatik kanpo geratuko dela.
- b.- Huts larria eginez gero (apurketak, elkar jotzea, gidatzearen segurtasuna arriskuan jartzea...): ezin izango du hurrengo hiru urtetan Mankomunitateak antolatutako beste ekintzetan parte hartu. Kalteak eragin baditu, Mankomunitateak dagozkion lege-ekintzak egiteko eskubidea izango du.

#### **OHARRA**

1.- Ezin da ez edaririk ezta janaririk ere igo autobusera.

Derion, 2018ko apirilaren 9an